

Eneko Agirre, hizkuntzalaritza konputazionakeko erreferentziazko elkarteko kide

Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultateko irakasle, hizkuntzaren teknologiako HiTZ ikerguneko zuzendari eta Ixa hizkuntza naturalaren prozesamenduko ikerguneko kidea ACL arloko erreferentziako zientzia elkarteko 'fellow' izendatu dute



Izendapen hori lortzen duen Estatuko lehen ikertzailea da Eneko Agirre. / UPV/EHU

Ostirala, 14 urtarrila 2022, 13:17



UPV/EHUK jakitera eman duenez, Eneko Agirre, Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultateko irakasle oso, hizkuntzaren teknologiako HiTZ ikerguneko zuzendari eta Ixa hizkuntza naturalaren prozesamenduko ikerguneko kidea, Association of Computational Linguistics (ACL) munduko zientzia elkarteko 'fellow' aukeratu dute, arlo hauetan egindako ekarpenengatik: adieren desanbigutasuna, antzekotasun semantikoa, itzulpen automatikoa eta euskarako baliabideen sorrera. Izendapen hori jaso duen Estatuko lehen

dira gure arloan, eta europarrak tokia egiten ari gara poliki-poliki», esan du kide berriak.

ACL elkarteak hizkuntzalaritza konputazionalerako 4.000 ikertzaile baino gehiago biltzen ditu. Adimen artifizialaren adar horrek hizkuntzaren teknologia eta hizkuntza naturalaren prozesamendua hartzen ditu. Elkarte horrek editatzen ditu arloko erreferentziako aldizkariak eta kongresu zientifikoak. Erakunde horren fellowen programa prestigiotsuak 2011z geroztik errekonozitzen ditu ikertzaile nabarmenenak. Orotara, 74 fellow dira, eta Europako 15 zentrotan dihardute. Eneko Agirrerekin batera, beste zazpi fellow aukeratu dituzte 2021ean, askotariko ikergunetakoak; tartean, Huawei eta Txinako Zientzia Akademia, Ameriketako Estatu Batuetako Michigango Unibertsitatea eta Washingongo Unibertsitatea eta Colby College, Alemaniako Heidelbergo Unibertsitatea eta Suediako Uppsalako Unibertsitatea. ACLko presidente Rada Mihalceak 2021ean aitortutako zortzi ikertzaileek itzulpen automatikoari, desanbiguazio semantikoari, diskurtsoaren analisiari eta prozesamendu eleaniztunari egindako ekarpenak azpimarratu ditu.